

BESTELAKO XEDAPENAK

LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

1775

EBAZPENA, 2022ko apirilaren 5ekoa, Garraio Azpiegituren zuzendariarena, zeinaren bidez jendurrean jartzen baita «Bilbao-Donostia lineako 79/036 KP-an Urola ibaiaren gaineko zubia konpontzeko eta sendotzeko eraikuntza-proiektua» delakoak ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda.

2022ko martxoaren 25eko Ebazpenaren bidez, «Bilbao-Donostia lineako 79/036 KP-an Urola ibaiaren gaineko zubia konpontzeko eta sendotzeko eraikuntza-proiektua» onetsi zen.

Proiektuaren xedea da Bilbao-Donostia lineako 79/036 KP-an Urola ibaiaren gaineko zubia konpontzeko eta sendotzeko egin beharreko jarduketak eta neurriak ezartzea eta deskribatzea.

Lursailak lortzeari eta ukitutako ondasun eta eskubideak kudeatzeari begira, proiektuak ondasun eta eskubide horien identifikazio xehea biltzen du, desjabetzeen eranskinean ageri diren lurzatien zerrendan eta planoetan.

Organo honek eskumena du garraio-azpiegituraren arloko jarduerak betearazteko beharrezkoak diren desjabetze-espeditenteak izapidetzeko, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 11/2021 Dekretuaren 16.2.c) artikulua xedatzen duenaren arabera.

Trenbide Sektorearen irailaren 29ko 38/2015 Legearen 6.2 artikulua xedatutakoaren arabera, beste lursail batzuk erabili beharra dakarten trenbide-lineen proiektuak, horien tarteak edo tren-azpiegituraren beste elementu batzuk eraikitzeke proiektuak edo lehendik zeuden azpiegiturak aldatzeko proiektuak onartzen direnean, onespenu berekin ekarriko du onura publikoaren edo gizarte-interesaren deklarazioa, lursail horiek okupatu beharra izatea eta okupazio hori premiazko zat deklaratzeko, proiektuetan identifikatu diren ukitutako ondasun eta eskubideak nahitaez desjabetze aldera.

Nolanahi ere, proiektua onartzeak inplizituki berekin dakarren arren proiektuak ukitutako ondasunak eta eskubideak okupatu beharra, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 17.2, 18 eta 19.2 artikuluek ezartzen dute ondasun eta eskubide horien xehetasunak jasoko dituen zerrenda egin eta jendurrean jarri behar dela, nahi duenak alegazioak eta datuak aurkeztu ahal izan ditzan, okerrak zuzentzeko eta interesdunak zeintzuk diren ondo zehazteko.

Hortaz, aipatutako xedapenak, horiekin bat datozenak eta aplikatu beharreko gainerakoak ikusirik, hau

EBAZTEN DUT:

Jendurrean jartzea «Bilbao-Donostia lineako 79/036 KP-an Urola ibaiaren gaineko zubia konpontzeko eta sendotzeko eraikuntza-proiektua» delakoak ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda, ebazpen hau azken aldiz argitaratu eta hurrengo hamabost (15) egun balioduneko epean alegazioak aurkeztu ahal izan daitezen, okerrak baldin badago zuzentzeko, hala ezartzen

2022ko apirilaren 26a, asteartea

baitute Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 19.2 artikulua eta horrekin bat datozenek. Alegazioak Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Garraio Azpiegituraren Zuzendaritzan aurkeztu beharko dira (Donostia / San Sebastián kalea 1 – Lakua 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

Aipatutako epean, ondasun eta eskubideen zerrenda Zumaiako udaletxeko iragarki-oholean ere erakutsiko da jendaurrean.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko apirilaren 5a.

Garraio Azpiegituren zuzendaria,
MARÍA DOLORES DE JUAN DE MIGUEL.

2022ko apirilaren 26a, asteartea

ERANSKINA

| Finka zk. | Katastroko erref. eta udalerría | Jabea | Eragin mota (m ²) | | | Izaera |
|-----------|---------------------------------|-----------------------|-------------------------------|---------------------|-------------------------|-------------|
| | | | Jabetza osoa | Zortasun iraunkorra | Aldi baterako okupazioa | |
| 001 | - Zumaia | Zumaiako Udala | - | - | 251 | Landa-finka |
| 002 | - Zumaia | Euskal Trenbide Sarea | - | - | 843 | Landa-finka |
| 003 | - Zumaia | Zumaiako Udala | - | - | 1462 | Landa-finka |